

noaia

Sagardo Eguna, iruditzen

Gidabaimena ere
euskaraz atera daiteke

Greba orokorra delitu
dute maiatzaren 30erako



**Zumarte Musika Eskolan
izena emateko garaia da**

salto gela

psikomotrizitatea

2010ean eta 2011an jaiotako
haurrentzako saioak

Ekainaren 24tik uztailaren 24arte

1. Taldea: 9:30etik 11:00ak arte.
2. Taldea: 11:30etik 13:00ak arte.
(talde mugatuak gehienez 12 haur)

Kuota: Aste bakoitzeko 35€
Aste guztietarako izena emanda: 140€

Kale Nagusia 27, Lasarte-Oria
Tel. 617 294 582
www.saltogela.net



antenas Telemar

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

943 36 46 00

www.lhusurbil.com

Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduak

Administrazioa eta
kudeaketa

Elektrizitate-elektronika

Fabrikazio mekanikoa

Ura eta energia
Produkzio zerbitzu eta manten.



Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

AURREMATRIKULA maiatzaren 27tik ekainaren 7ra



Albisteak iruditan

Baserritarrak eta Udarregiko ikasleak, elkarrekin

San Ixidro eguneko da argazkia. Elkarrekin dira baserritarrak eta Udarregi ikastolako gaztetxoak.

Gainontzean, eguraldiak ez zuen asko lagundu. Goizeko meza nagusiaren ondoren, hamaiketako banatu zen frontoian. Eta herri kirolen txanda iritsi zen segidan.

Baserritarren eguna ospatzen jarraitu zuten Artzabalen, bazkari baten bueltan. Eta arratsaldean, giroa okerra bazen ere, erraldoi konpartsa ibili zen kalejiran.



Euriaren erruz, ekitaldi ia denak frontoian egin ziren. Argazkian Udarregiko ikasleak eta hainbat baserritar.

Laburrean

Lanbide Eskolako aurrematrikulazioa astelehenean irekiko da

Azken asteetan, ate irekien jardunaldiak egin dira Lanbide Eskolan. Astelehenean, ordea, aurrematrikulazioa egiteko epea irekiko da. Maiatzaren 27tik ekainaren 7ra egongo da matrikula bideratzeko aukera. Informazio gehiago eskura daiteke 943 364 600 telefono zenbakian, Interneten lhusurbil.com helbidean edo e-posta bidez: eskola@lhusurbil.com

1963-66 urte artekoen kinto bazkaria Sekaña erretegiaren ospatuko dute

Bi aste barru, ekainaren 8an larunbata, kinto bazkaria antolatu dute 1963 eta 1966 urte artean jaio ziren aginagarrentzat.

Otordua, Sekaña erretegiaren egingo da. Bazkaritara joateko asmo duenak, ordea, aldeztu aurretik izena eman behar du. Antolatzailerak telefono zenbaki hau ipini dute interesatuta daudenentzat: 943 362 773.

Liburutruk ekimena abiarazi du Hitz Aho guraso elkarteak

Ikastolako liburuak berrerabiltzea du xede Liburutruk ekimenak. "Zenbait balore garatzen lagunduko diegu: besteekiko elkartasuna, guztion gauzak zaintzeko joera, komunitatearekiko lotura, kontsumo arduratsua eta ingurua-
rekiko errespetua", adierazi dute Hitz Ahotik. Informazio gehiago Udarregi ikastolan jaso daiteke.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.com /// www.noaqua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak




Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Bea Alda,
publizitatea@noaqua.com.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaqua.com:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.
Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiete, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Luis Aranalde

Albert Camus: pertsona askea

Albert Camusen jaiotzaren mendeurrena ospatzen da aurten. Gazteluko apez etxean aurkitzen nintzen istripuz hil zenean: gure erretorea eta biok harri eta zur gelditu ginen; artean frantsesez behintzat bere obra irakurri gabe nengoen, baina ospe handiko idazle ete intelektuala zen. 45 urte zituen.

1913an jaio zen Aljerian; garai hartan Frantziaren mende zegoen lurralde hau; bere haurtzaroz ezer gutxi dakigu. Bere aita Marnen hil zen II. Mundu Gerran Camus haur bat zela. Bere amak atera zuen aurrera; andaluziarra zen eta eskolagabea, baina, ikono paregabea Camusentzat; bere idazkietan askotan aipatzen du ama. Camus bataiatua izan zen eta lehen jaunartzea ere egin zuen, baina gazte gaztetandik urrundu zen Eliza katolikoaren-gandik.

1940an ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituen. Kazetari, nobelagile eta filosofo izan zen batipat. Bere obren artean bi dira gehien ezagutzen direnak: "La Peste" (izurritea) 1942an idatzia

eta "L'Étranger" (atzeritarra) 1947an. Lehen hori berrogei bat hizkuntzatar itzulia izan da; Viscontik ere zinemara adaptatu zuen. Bi eleberrri hauetan bizitzaren absurdua deskribatzen du askotan, baina baita bere kezka filosofikoak, erlijiosoak, zenbait pertsonaren axolagabekeria egoera zailtan, beste batzuen konpromisoa munduko bidegabekeriak konpontzeko; inkonformista agertzen da oso maiz, txiroen defendatzaile eta besteen nahigabeak sendatzen saiatzen direnen miresle, "La Peste" nobelari agertzen den sendagilea bezala... 1957an eman zioten Nobel Saria.

Hiru frontetan borrokatu zuen batez ere:

1-Stalinismo basatiaren aurka. Europako intelektual ezkertiar gehienek onetsi egiten zuten eta leial jokatu komunismoaren diktadura beldurgarri haren aurka, nahiz eta jakin ehunka mila sobietar zudelako konzentrazio kanpoetan, sikiatrikoetan eta gulagetan komunismoaren estilo hura kritikatzeko; horien artean izen ospe-

tsu batzuk: Soljenitsine, andrei Zajarov etabar. J. Paul Sartre, existentzialismoaren eta ateismoaren ikono hark ere bedekatu egiten zuen Stalinen diktadura. Arrazoi honengatik hain zuzen ere haserretu zitzaion Camus.

2-Frantziako kolonialismoaren eta nazionalismoaren kontra ausart aritu zen; aljeriar zenez, frantziarren gehiegikerien testigu izan zen oso sarritan. Milaka aljeriar torturatuak izan ziren. Camusek salatu egin zituen inongo beldurrik gabe; asko maite zuen Frantzia eta bere kultura, baina, basatikeria horiekin zituen onartzen.

Makinabat atsekabe jasan izan behar zuen bere postura erostezin horrengatik.

3-Eliza katolikoaren zenbait jarrera ere biziki gaitzetsi zituen. Kristau askoren jokaera oso ego-kia iruditzen zitzaion, hain zuzen ere bidegabekeriaren aurka saiatzen zirenean, sinesmenak eraginda mundua konpontzeko gogoak agertzen zutenena, baina, hierarkiak hartu zituen erabakiak apaiz lan-gileen kontra alde batetik eta bes-

tetik teologo ospetsu batzuen (Teilard de Chardin, Yves Congar, De Lubac...) gaitzespene bestetik, inoiz ez zuen eman eliza katolikoan sartzeko pausoa.

Une askotan sekulako bakardadean aurkitu zen; izan ere, zenbait sektoretan, inoiz ez zioten barkatu bere jarrera beligerantea. Camusek bazekien injustizia guztien aurkako apustuak askotan bakardadea duela prezio. Bakartasunean aurkitzen zaren jabetzen omen zara zeintzuk diren zure benetako lagunak eta zeintzuk sasi adiskideak.

Ez zitzaion gustatzen ateotzat hartua izatea. "Zaharkituztat eta zabartzat" jotzen zuen ateismoa. Honetan ere ez zetorren bat bere lagun ohi J.P. Sartrekin.

Esaldi pare batekin laburtuko nuke idazle aske honen pentsaera: "Tirania totalitarioa ez da oinarritzen tiranoen bertuteetan, demokraten konpromiso ezaren baizik".

"Besteei sufrituaraztea da mundu honetan egin dezakegun okerrik makurrena".

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | Maialen Unanue | **Luis Aranalde** | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi

Txikiak Buruhandi

Maiatzaren azken astean Udarregi ikastolako kultur astea ospatu ohi da. Hitz-Aho ikastolako guraso elkarteak hainbat ekitaldi prestatu ditu maiatzaren 31erako herriko frontoian.

Arratsaldeko 17:00etatik 18:15era, haurrentzako jolasak izango dira, Gaztetxeko laguntzarekin.

18:15etatik 19:00etara, txokolate egin berria banatuko zaie haurrei. Ondoren, buruhandi txikien desfilea hasiko da (haurrek etxetik ekar ditzatela dauzkaten buruhandiak).

Gaueko 22:00etan Oihan Vegaren bakarrikzeta hasiko da Suteegin. Sarrera 2 euro aurretik eta 4 euro egun berean (Bordaxo tabernan salgai).



Maiatzaren 31n aterako dira buruhandiak kalejiran.

Ucinek Udalari ez, Jaurlaritzari aitortzen dio ikuskapenak egiteko eskumena

Hogeit bat lagun bildu ziren maiatzaren 15ean, airearen kalitateari eta Ucin enpresarekin dagoen arazoari buruz hitz egiteko, Usurbilgo Udalak Sutegi atarian deitu zuen batzarrean. Gai honi lotuta azken asteotan izan diren nobedadeen berri eman zuen ingurumen alorreko zinegotzi Jose Maria Rivadeneyrak, aurretik arazo honen inguruan udaleko ingurumen batzordean informatu ostean. Bertaratutako herritarren ahotan, berriz ere azken egunotan arnastu behar izan duten usain txarra zegoen.

Usain txarra, lizentzia berria, ingurumen baimen bateratua eta gai honetan, zerbait egiteko batzuk eta besteek dituzten eskumenak hizpide izan zituen gobernu taldeko ordezkariak. Udalak emandako lizentzia berriaren aurrean, eta horretarako zuen denbora tartearen baitan, Ucinek helegitea aurkeztu duela berri eman zuen Rivadeneyrak. Bilduko zinegotziaren esanetan, ikuskapenak egiteko Udalak eskumenik ez duela defendatzen du Ucinek. Eskumen hau Eusko Jaurlaritzari dago-kio Atxegalde ondoan kokatua dagoen enpresaren aburuz, eta ez Usurbilgo Udalari. Ucinek aurkeztu duen helegiteari zer erantzun eman, aztertzen dabil egunotan Udala.

Jaurlaritzaren jarrera, giltzarria

Iragan asteko batzarrean ahotan hartu zuten beste gaia, Ucin ingurumen baimen bateratua izan zen. Enpresak berak baimen honen baitan aldaketa bat egitea eskatu omen dio Jaurlaritzari, "ingurumenarekiko babesa betetzen duela bermatu behar baitu". Aldaketak, Rivadeneyraren esanetan, honetan datza: "Txatarra garbia jartzen duela eskatu nahi dio Ucinek Jaurlaritzari, baina txatarra garbia zer den definitu gabe". Hondakin balorizatzailea izatea ere galdegiten ari omen dira.

Eskaera honen aurrean, Udalaren esanetan, bi erabaki har ditzake Jaurlaritzak. Eta erabaki horren baitan, Udalak gai honetan zeresana izan dezake, edo ez. Batetik, Ucinek



Usain txarra sumatzen bada Udaltzaingora deitzeko eskatu du Udalak.

eskatzen duen aldaketa esanguratsua dela baloratu dezake, edota aldaketa ez esanguratsutat jo. Gasteizek azken aukera honen alde egiten badu, "Ucin-i zuzenean baimena eman diezaioke".

Aldiz, aipatu enpresak eginiko eskaera esanguratsutat jotzen badu, "Jaurlaritzak Udalari iritzia eskatu eta Udalaren iritzia kontuan izan behar du. Guk aldaketa funtsezkoa dela izatea eskatzen dugu".

Jose Maria Rivadeneyra zinegotzia: "neurriak hartzea eskatzen diogu Jaurlaritzari"

Egoera honen aurrean, Udalak eman asmo dituen hurrengo urratsak beraz, honakoak dira; batetik, Ucinek aurkeztu duen helegiteari erantzutea. Honekin batera, eta gobernu aldaketa egon denez, alor honetaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzako ordezkari berriarekin ere biltzekoa da Udala. Eskaera zuzena bideratu nahi diote Gasteizi. "UCIN-ek onartu du ez duela baimena betetzen. Horregatik Jaurlaritzari neurriak hartzea eskatzen diogu".

Usain txarra sumatuz gero, Udaltzaingora deitzeko eskaera

Artean, batzarrean bildutako herritar batek, bitarte honetan zer egin zezaketen galdetzen zuen. Usurbilgo Udaletik, usain txarra sumatu edota kea ikusi bezain laster, Udaltzaingora deitzea eskatzen dute. Hauxe, udaltzainen telefono zenbakia: 943 361 112.

Hilabeteko lehen asteazkenean, konpost ikastaroa Potxoenean

Atez atekoa hasi zenetik, asko dira hondakin organikoak konpostatzen ikasi duten herritarrek. Gaur egun, 630 familia baino gehiagok konpostatzen du Usurbilen, bere etxean edo auzoan, eta modu honetan "hileroia 12 tona hondakin organiko herrian konpostatu eta bertan geratzen dira, gure baratz eta lurren mesederako. Eskarmen-tua badugu beraz", udaletxeko Ingurumen Batzordetik aditzera eman digutenez.

Hala ere, oraindik orain, bada konpostatu nahi baina ezin duenik. Atez ateko bulegora zalantzak argitzera hurbiltzen direnak, edota konpostatzera animatzen diren bizilagun berriak ere bai. "Horrela bada, aurretik, Usurbilgo Udalak konpost ikastaroak antolatuko ditu", adierazi digute udal iturriek. Hilabeteko lehen asteazkenean egingo dira ikastaroak, arratsaldeko 19.00etan Potxoenean.

"Gonbitea luzatzen zaizue, konpostatzen hasi nahi duzun bizilagun orori: izen emanda eta itxarote zerrendan zaudeten auzokonpostalari, edota konpostaz zalantzak argitu edo gehiago ikasi nahi duzun guztiei". Lehen hitzordua ekainaren 5ean izango da, asteazkena, arratsaldeko 19.00etan Potxoenean.



600 familia baino gehiagok egiten du konpost herrian.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Jaietako egitarau lehiaketara lanak aurkezteko azken egunak

Maiatzaren 27ra arte aurkez daitezke lehiaketa honetarako lanak. 2013ko Santixabelen berri emango duen egitarauaren diseinua herritarren esku utziko du Jai Batzordeak. Norbanako zein taldeek, "nahi adina lan" aurkeztu ditzakete, euskaraz. "Taldeen aurkeztuz gero, taldekide bat izendatuko da lanaren arduradun", diote lehiaketako oinarriek. Egitaraua diseinatzeko testua Potxoenean eskura daiteke. Gogoan izan, testu horretan oinarrituta marraztu behar baita egitarauak izango duen itxura.

Ohi bezala, lanaren neurria librea izango da. Diseinuak egitarauaren orri guztiak hartu behar ditu bere baitan. "Aurkeztutako lanetan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da. Pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan islatu behar da. Izan ere, emakumezkoak eta gizonetzkoak neurri berean ekintzaile eta protagonista modura agertu behar dira, 4/2005 Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legeak agintzen duen modura. Udal berdintasun teknikariak aholkua eskaintzen du honen inguruan", adierazi dute antolakuntzatik.

Saria, 500 euro

Lanak euskarri digitalean eta paperean aurkeztu behar dira, egilearen inongo seinalerik gabe. Egilearen datuak berriz, hau da, izen-abizenak, telefono zenbakia eta helbidea, aparteko gutunazal itxi batean adieraziko dira. "Gutunazalean, izengoiti bat jarriko da, eta izengoiti hori bera agertuko da aurkeztutako lanaren atzealdean", diote egitarau lehiaketako oinarriek.

Lanak helbide honetan aurkeztu behar dira: Usurbilgo Udala, Kultura Saila. Jose Martin Sagar-dia Plaza z.g. 20170 Usurbil.

Egitarau lehiaketako irabazlea, Jai Batzordeko bi kidek, diseinu arloan ezagutza duten bi kidek eta kultura zinegotziak osatuko duten epaimahaiak erabakiko du. "Erabakia hartzeko orduan,



Lehiaketara aurkezteko epea maiatzaren 27an amaituko da.

garrantzi handia emango zaio, besteak beste, egitaraua erraz irakurtzeko modukoa izateari", oinarrien arabera. Gainera, "lan irabazlea aukeratzeko, epaimahaiak kontuan izango du lana inprimatzeko izango duen kostua. Inprimaketa kostuak beti ere bat etorri behar du udalak aurreikusita duen aurrekontuarekin. Gehiegizko gas-tua lana baztertzeko arrazoia izan liteke".

Irabazleak 500 euroko saria jasoko du. Baina, "saria eman gabe geratu ahal izango da, baldin eta aurkeztutako lanek ez badute behar besteko kalitaterik".

Beste hiru ohar; lanaren jatorrizko diseinuak inprimatzerakoan aldaketaren bat izan lezake; lehiaketara aurkeztutako lanekin Udalak erakusketak egin lezake; lehiaketan parte hartzeak ezinbestean dakar oinarri hauek onartzea. Argibide gehiago: 943 371 999 edo kultura@usurbil.net

"Nork merezi du?"

Aurtengo herriko festei hasiera nork eman, herri-tarrek erabakiko dute aurtengo. Horretarako, "Nork merezi du?" izenburupean, festa inauguratuko dituen suziria nork piztuko duen erabakitzeke herritarren proposamenak bildu nahi ditu Jai Batzordeak. Ekarpenak, kultura@usurbil.net helbidera bidali daitezke, edo zuzenean, Potxoene-ara edo Sutegi udal liburutegira eraman, ostiral hau, maiatzaren 24a baino lehen.

Udajolasen izena emateko azken eguna, maiatzak 27

Ordutegi honetan eman liteke izena: aste-lehenetik ostiralera (maiatzaren 21etik 27ra artean): goizez, 10:00-11:00 artean, eta arratsaldean, 16:00etatik 18:00etara NOAUA!ko egoitzan.

Usurbilen erroldatutako 4-12 urte arteko haur eta gaztetxoek parte hartu ahal izango dute. Hau da, HH3-LH6 maila artean ikasten dabilzanek.

Apuntatzerakoan, Udarregi Ikastolan banatuko duten izen emate orria ekarri behar da. Gehienez, 130 haurrentzako lekua dago 2013ko Udajolasen. Izen emandako haurren kopuruak aipatu zenbaki hori gainditzen badu, plazak zozketatuko dira aste-lehenetan bertan, maiatzaren 27an, 18:30etan Potxoenean. Eta ondoren, onartu eta baztertuen zerrenda NOAUA!ko egoitzan jarriko da.

Aurtengo kuota, 79 eurokoa da. Familia ugarien kasuan, 63 euro (ahaztu gabe, txartelaren kopia ekarri).

Udajolas uztailaren 3tik 30era burutuko da. Goizez eta lau orduz, 9:30-13:30 artean. Informazio gehiago: 943 360 321.

Txokoak Aginagan

Antxomolantxa elkartearen eskutik

Ekainaren 24tik 28ra eta irailaren 2tik 6ra. Ordutegia: 10:00-13:00. Prezioa: bazkide direnek 10 euro, gainerakoek 20 euro. Izen ematea: ekainaren 5era arte, 637 332 402 telefono zenbakian.

San Praixku guraso elkartearen eskutik

Uztailaren 1etik 30era. Izen ematea: hila-bete osorako edo hilabete erdirako apun-tatzeko aukera ekainaren 14ra arte, 637 332 402 telefono zenbakian. Aginagako eskola-ko ikasleentzat: 55 euro hilabete osoa, 30 euro hilabete erdia. Aginagako eskolako ikasle ez direnentzat: 90 euro hilabete osoa, 55 euro hilabete erdia.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

Lurra lantzen hasiak dira, Agerreazpiko udal baratzeetan

BARATZEEN SARRERAN, LANABESAK, ALDAGELAK ETA ASKAK DITUZTE

Lur sailak zozketa bidez esleitu eta beharrezko prestakuntza jaso ostean, lurra lantzen hasiak dira Usurbilgo 54 sendi, Agerreazpin kokaturik dauden udal baratzeetan. Batzuk, ustiatzeko 30 metro karratuko eremua dute, besteek halako bi, 60 metro karratuko eremua. Ustiatzaile izateko lehenetasuna zuten, langabetuek, jubilatuek, pentsiodunek, gazteek eta konpostatze komunitarioan dihardutenek. Ustiatzaileek autokontsumorako ekoiztu ahal izango dute, ezingo dute baratzeetatik jasotakoa saldu.

"Baratze Parkeak norberaren barazkiak era ekologikoan egiteko aukera eskainiko du", adierazi dute berriki, egitasmo honen sustatzaileek, Agerreazpiko eremuan bertan eskainitako prentsaurrekoan. Baratze parke hauen bidez, besteak beste, sentsibilizazioa bultzatu nahi dute. Bertako produktuak ekoizteak duen lanaz jabetzea sustatu nahi dute, lurrak esleitu zaizkien herritarren artean. Aipatu moduan, Agerreazpin lurra lantzen hasi direnek, ikastaro bat egin dute, eta hemendik aurrera, "erabiltzaileek hilero jarraipen tutorial bat izango dute euren kezkak eta zalantzak argitze-ko".

Udal baratzeen sarreran, lanabesak, aldagelak eta askak dituzte, euren lanerako lagungarri izango zaizkienak. Baina Udalarena den lur sail haue- tan, konpostagunea eta ikastaroak emateko lekua ere kokatuko dira aurrerantzean. Hala ere, hori baino gehiago izango da Agerreazpiko gunea. "Aisialdi aktiborako topagunea



Ekogune eta Udaletzeko ordezkariak, Parkearen aurkezpenean.

KUTXA EKO-GUNEAK

"Baratze Parkeak norberaren barazkiak era ekologikoan egiteko aukera eskainiko du"

izango da, giza talde ezberdinen arteko elkarbizitza eta harremana bultzatuko duen gune berdea. Bertan belaunaldi ezberdinen arteko trukea emateko aukera izango da, txiki zein helduen artean, naturarekiko errespetua sustatuz", zioten ekimen honen bultzatzaileek.

Zehazkiago esanda, ondoko argazkian dituzuen Mertxe Aizpurua alkateak, Ibon Goikoetxea ingurumen alorreko udal teknikariak eta Mikel Insausti Kutxa EKO-GUNEko zuzendariak. Elikadura eta ohitura osasuntsuak sustatzearen aldeko apustua egin asmo dute, Usurbilgoa bezalako baratze parke egitasmoen bidez.

WEB ORRIALDEA, BESTE TOPAGUNEAK

Usurbilgoa Gipuzkoa mailan martxan jarri den bigarren

udal baratze egitasmoa da, Lezokoaren ostean. Tolosa eta Ekoguneko udal baratzeak zabalduko dira hurrengo hilabeteetan. "Gipuzkoako baratzak martxan jarri ahala, Baratze Parke Sarea gauzatuko da. Honen bitartez, Kutxa EKO-GUNEAK informazioa eta aholkularitza zerbitzua eskainiko du, erabiltzaileen zalan- tzei erantzuteko eta informazioa trukatzeko edota ekitaldiak antolatu ahal izateko", diote. Gai honi buruzko argibide gehiago, www.baratze-parkea.ekogunea.net web orrialdean jaso daiteke. "Honen bidez, erabiltzaileek Baratze Parkea Sareko informazio guztia eskuragarri izango dute: baratzeazaintzari buruzko aholku praktikoak, ikastaroak, ekimenen agenda, argazki galeriak... Bestalde, Baratze Parkea Sareko kideek foroan parte hartzeko aukera izango dute. Modu honetan, herri ezberdinetako Baratze Parkeko partaideek elkar eza- gutzeko eta informazioa zein gomendioak elkar trukatzeko aukera izango dute", ohartarazten dute.

Laborantza ikastaroa, Usurbiltzenekin

Hedadura, lursailaren prestaketa, laboreak eta garai egokiak, plan- gintza, hazitegiak, ereintza, labo- reen zaintza, tratamendu natura- lak, elkarketak eta errotazioa lan- duko dituzte animatzen diren par- taideek. Plazak mugatuak izango dira, gehienez 12 lagunentzako lekua dago. Ekainaren 1ean eta 8an emango da ikastaroa. Eta saioen ordutegia hauxe izango da: goi- zez, 9:30-13:30 artean. Prezioa, 20 euro. Izen ematea: 646 449 358 edo usurbiltzen@gmail.com.

Antolatzaileek ohartarazi dute- nez, "ikastaroa praktikoa izango da eta baratze ekologiko batean arituko gara, beraz arropa eta oinetako egokiak eraman itzazue. Hamaiketako eramatea gomen- datzen da, sagardo ekologikoa bertako ekoizleek jarriko dute".

DYAren ikastaroa

Ikastaroa asteburuetan eskainiko da, ekaineko larunbat eta igande guztietan (ekainaren 1ean hasi 23ra bitartean). Larunbatetan, goi- zeko 9:00etatik 13:00era eta arra- tsaldeko 15:00etatik 19:00era; eta igandeetan, goizeko 9:00etatik 13:00etara. Usurbilgo Oiarde Kirol- degian eta Etumeta AEK Euskal- tegian emango dira ikastaroko eskolak.

Teoria eta praktika uztartuz, oso modu erosoa eta atsegin- ean eskainiko da ikastaroa. Hori bai, beharrezkoa da aurrez lehen soros- pen eta sorosle ikastaroa egina iza- tea.

Ikastaro amaierako frogak gain- ditzten dituenak, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen Uretako Sorosle Titulua eskuratzeko aukera izan- go du.

Matrikularen prezioa, ikasta- rorako txostena barne, 200 euro- koa izango da. Hori bai, kontuan izan plaza kopurua mugatua izan- go dela, ematen den hezkuntza- ren kalitatea bermatzearren.

Izena emateko edo jarduera honen inguruko informazio gehia- go jasotzeko: 943 46 46 22.

Aukeran, zer ikasi ugari dago Zumarte Musika Eskolan



4 urtetik gorakoek eman dezakete izena Zumarte Musika Eskolan.

Datorren astelehenean irekiko da matrikulazio epea Zumarte Musika Eskolan. Ostirala bitarteko tartea egongo da apuntatzeko, Musika Eskolara gerturatuta ordu-tegi honetan: goizetan, astelehena izan ezik, 11:00-13:00 artean eta arratsaldero, 16:30-19:30 artean. 2013-2014 ikasturte berrirako ere, eskaintza oparoa izango da. 4 urtetik gorakoek eman dezakete izena, Zumarte Musika Eskolan.

MATRIKULAZIORAKO ARAUTEGI OROKORRA

- Ordainketa egitea derrigorrezkoa da matrikula egin ahal izateko.
- Matrikulazio data barruan

matrikulatzen ez den ikasleak bere plaza galduko du.

- Musika txokoa, musika mintzaira eta instrumentuko ikasle berrien kasuan, eskainitako plaza kopuru baino eskaera gehiago badago, matrikulazioa bukatu eta hurrengo ostegunean arratsaldeko 19:00etan zozketa egingo da.
- Zozketan sartu ahal izateko matrikula ordainketa egin eta agiria musika eskolan entregatu beharko da ikaslearen datuekin batera. Zozketaren ondoren itxaron zerrenda egingo da eta bajarik egon ezkerio itxaron zerrendako ikasleak sartuko lirateke.
- Zozketaren ondorioz plaza gabe geratzen diren ikasleei matrikula itzuliko zaie.

2013-2014 ikasturtea

- Egunak: Maiatzaren 27tik maiatzaren 31 bitarte.
- Ordu-tegia: Goizez (egunero, astelehena ezik): 11:00-13:00. Arratsaldez (egunero): 16:30-19:30.
- Ikasgaiak: Musika-Txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpetak, saxofoia, biolina, biola, biolontxelo, perkusioa, klarineta, abesbatza, teknika bokala, esku-soinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta, organoa, talde instrumentala.
- Gutxieneko adina: 4 urte.
- Informazioa: Kale Nagusia, 45.
- Telefonoa: 943 371 594.
- www.zumarte.org

Euskarazko irakurketa topaketa Sutezin

Sutezi udal liburutegia euskarazko irakurketa topaketa bat antolatzen da. Euren blogetik berri eman dutenez, "gidaria Pako Aristi izango litzateke eta berak proposatutako liburuaren ale ezberdinak Liburutegiak eskuratuko litzuke interesa duenarentzako, saioa baino aste batzuk lehenago; izan ere, liburuak alde aurretik irakurritz gero, etekin handiagoa aterako baitiogu topaketari. Hau, 16 urtetik gorako irakurleei zuzendua, ekainean izango litzakete, astegunean, arratsalde-ilunabarrean. Parte hartzera animatuko zinateke? Hala bada, jakinarazi iezaguzu lehenbailehen, inolako konpromisorik gabe, Liburutegiko Harrera-gunean. Anima zaitez!". Informazio gehiago: liburutegiak.blog.euskadi.net/ usurbil

Zubietako Kultur Astea, azken txanpan

Astelehenean abiatu zen Zubietako Kultur Astea. Segidan aipatzen ditugun bi ekitaldi hauekin amaituko da Guraso Elkartekoek prestatu duten egitaraua.

Maiatzak 23, osteguna

- 17:00 Puzgarriak eta giza mahai futbola frontoian.

Maiatzak 24, ostirala

- 17:00 Frontoian: musika eta antzerki emanaldia. Txiki disko eta karaokea.
- Antolatzailea: Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkartea.

www.noaUA.com

USURBILGO ATARIA

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Sagardo Eguna, iruditan

Goizean goiz hartu zen erabakia. Euria ari zuenez, Dema-plazan ez zen sagardorik banatuko. Horren ondorioz, frontoia jendez lepo egon zen hainbat unetan, baina ez zen arazo izan. Alderantziz, giroa indartzen lagundu zuen. 11:30ean, Etxaniz

anaien txalaparta doinuekin batera hasi zen jendea frontoira hurbiltzen. Aurten, Urko Manterolak eman dio hasiera Sagardo Egunari. Urte askotan aritu da antolaketa lanetan eta egungoek era horretan eskertu nahi izan zioten. Atertzearekin batera, As-katasuna plazan ere lan eta lan aritu ziren.

ARANTXA UNANUE NAGUSI

Arantxa Unanuek irabazi zuen Sagardo Eguneko botatzaileen arteko lehiaketa. Bigarren Iñaki Agirresarobe 'Tola' izan zen eta hirugarren Kerman Errekondo. Txalo gehien, ordea, Zuriko Latailladek jaso zituen. Berarentzat izan zen "ikusleen saria".



QR kode horien bitartez, Sagardo Egunean egin genituen bideo ezberdinak ikus ahal izango dituzue.

Jendetza, Sariaaundi baserriko bisita gidatuan

Berritu baino, XVI. mendeko dolare baserri bat berreskuratu dute Aginagan: Sariaaundi. 140 lagun hurbildu ziren aurreko larunbatean antolatatu zen bisita gidatura. Eta horietako asko, beste herri batzuetatik etorriak. Luis Alberdi arkitektoak eta Jakoba Errekondok eman zituzten azalpenak. Bideoz jaso genituen pasarte batzuk (irudi kalitatez da ona, baina tira).



QR kodearen bitartez, eskuko telefonotik ikus daiteke bideoa.

Dastatze ikastaroa

Sagardo Eguna pasa den arren, "I. Sagastiak Loretan" izeneko zikloak aurrera darrai. Ostegun honetan, maiatzak 23, Guillermo Castaños enologoa (argazkian) Aitzaga elkartera hurbilduko da dastatze ikastaro modukoa eskaintzerara. 19:30ean, sarrera doan.



Joxean Bengoetxea, Bengoetxea Autoeskola: “Laster izango da aukera, praktikoa euskaraz ateratzeko”

Andoaingo Bengoetxea Autoeskola 60. hamarkadan jarri zen martxan. Villabonan ere badu egoitza. Urte guzti hauetan asko aldatu dela sektore hau dio Joxean Bengoetxeak autoeskolako jabeak eta Gipuzkoako Autoeskolen Elkartearen presidentea. Bengoetxea Autoeskolan, garai berrietara egokitzen joan dira eta 2010etik gidabaimenaren alde teorikoa euskaraz ateratzeko prestakuntza eskaintzen dute, Buruntzaldeko gainerako autoeskoletan batera. Hurrengo pausoa: praktikoa euskaraz.

Urte hauetan guztietan zer aldatu da batez ere, gidabaimena ateratzeko garaian?

Izugarri aldatu da formakuntza. Gidaria askoz ere prestatuagoa dago orain, bai teorikoki bai praktikoki. Kontuan izan behar da, urte hauetan trafikoa ugaritu egin dela. Gero eta kotxe gehiago daude eta kontu handiagoarekin ibili behar da.

Eta formakuntza jasotzeko moduan ere asko aldatuko ziren gauzak.

Bai, hala da. Esaterako, orain, formakuntza intentsiboa ere eskaintzen dugu. Astebeteko iraupena izaten du eta klaseak goiz eta arratsalde izaten dira.

Internetari dagokionean, bai, batzuk erabakitzen dute beraien kabuz prestatzea eta testak on line egitea, baina modu horiek ez dira oso fidagarriak nire ustez. Izan ere, testetako galdera batzuk ez dira zuzenak izaten, zalantzak argitzeko ere ez daukazu zeinek kontsultatu...

Hala ere, normalean, jendeak betiko metodoa erabiltzen du. %20 inguru izango da beste bideak erabiltzen dituenak.

Azterketak egiteko modua ere aldatu egin da, ezta?

B baimena, hau da, kotxe



Joxean Bengoetxea Andoaingo Bengoetxea autoeskolan.

“Euskarazko test guztiak gainbegiratzeko dituzte eta gaizki formulatuta daudenak baliogabetu egiten dituzte”

gidabaimenari dagokionean, azterketak 30 galderakoak izaten dira eta 3 akats egin daitezke. Urte askoan, 40 galdera eta 4 akats izan dira. Hori aldatu dezakete berriz. Hori bai, iazko urte bukaeratik DGT Espainiako Trafiko Zuzendaritzak 800 galdera posibleetatik 15.000ra igotzea erabaki zuen, beste neurri batzuen artean, eta horretan ari dira.

Orain galderak desberdin formulatzen dituzte, galderen ordena ere aldatu egiten dute eta saiatzen dira ingurukoek ere ez izatea galdera berdina, ez kopiatzeko. Lehen, galderak eta erantzunak buruz ikasteko aukera zegoen eta pedagogikoki ez zelako ona aldatu dute. Edukiak ondo barnatzea nahi dute eta ez azterketa gainditu eta urte gutxira guztia ahaztea.

Eta papera alde batera utzi eta azterketak ordenagailuz egiten ere hasi dira.

Hasiera batean, estatu mailan 5 herrialdean jarri zen martxan, proba bezala. Gero 20 herrialdetara zabaldu zen. Gipuzkoan 2012ko azaroan jarri zen martxan. Kontua da, azterke-

tak Donostian, Beasainen eta Azpeitian egiten direla eta ordenagailuak Donostian bakarrik daudela. Beraz, beste herri horietan oraindik paperean egiten dituzte.

3 urtetan, hirukoiztu egin da gidabaimena euskaraz ateratzeko dutenen kopurua. Zuek ere nabaritu al duzue?

Egia esan, urte hasiera ona izan da. Dagoeneko 5 lagun inguruk ateratu dute teorikoa euskaraz hemen, Bengoetxean. Askok zabalitzen ari den aukera da, eta batez ere, ahoz aho kalean. Datu orokorrekin erreparatu, 2010ean EAE osoan, 40 ziren euskaraz ateratuak eta 2012an, Gipuzkoan bakarrik, 727 izan ziren.

Egindako lanaren emaitza ere izango da.

Bai, izan ere, gauza askok eragiten dute pertsona bat animatzea. Ez da berak nahi izatea bakarrik, autoeskoletan ere aukera eman behar dute eta material egokia izan, instituzioen laguntza ere beharrezkoa da...

Gipuzkoan oraindik herri batzuetan ez dago hain zabaldua. Buruntzaldean bai, oso indartsu dago eta Oiartzunen ere bai. Oiartzun eredu da. Hain arraroa da gaztelaniaz egitea. Herriak asko eskertu duen zerbitzua da. Eta horretan, Udalek egiten duten kanpainak garrant-

tzia handia dute.

Jakin denez, arazoak izan dira azterketetan euskarazko ber-tsioekin, baina konponbidea jarri diozue, ezta?

Kontua da, Deba garaian izan zirela lehenengoak euskarazko zerbitzua eskaintzen eta autoeskoletako materiala euskaratzen lan handia egin zuten. DGTk material hori erabiltzen zuen azterketetan, baina orain, 15.000 galdera berri horiek sar-tzearekin itzulpenak gaizki egin dituzte, besteak beste.

Dena dela, Edorta Simon Gipuzkoako Trafikoko Buruarekin bildu ginen berehala eta oso ondo hartu gintuen. Lan handia egiten ari da Madrilen. Euskarazko test guztiak gainbegiratzeko dituzte eta gaizki formulatuta daudenak baliogabetu egiten dituzte. Ondo dauden galderak bakarrik hartzen dituzte kontuan. Gainera, baten batek arazoak izan baditu azterketan eta erreklamatu egin nahi badu, trataera berezia izango du. Euskarazko kasuetan, azterketa erakutsi egiten dute eta gaztelaniazkoetan ez.

Teorikoan pauso handiak eman dira, baina oraindik lortzeko dago praktikoa. Nola dago egoera?

Alde hori lantzen ere bagabiltza Edorta Simonekin. Aztertzaileei euskarazko formakuntza emateko asmoa azaldu zuen, baina boluntarioa, eta askok ez dute gogo berezirik. Guk ere proposatu genion prest egongo ginatekeela oinarritzeko hitz batzuk erakusteko aztertzaile horiei. Pixkanaka, baina ari gara pausoak ematen. Eskatuz gero, batzuetan izaten da aukera eta batzuk ari dira euskaraz egiten. Izan ere, Gipuzkoan 8 aztertzaile daude eta bik badakite euskaraz. Beste 3 prest azaldu dira oinarritzeko formakuntza hori jasotzeko. Beraz, ondo doaz gauzak. Laster errealitatea izango da.

SEMAFORO BERDEA!! - GIDABAIMENA EUSKARAZ

“Nik teorikoa gainditu dut, eta euskaraz!”

Aurten ere, Buruntzaldeko udalek Semaforo Berdea! Gidabaimena euskaraz kanpaina jarri dute martxan. Saritu egingo dituzte gidabaimena euskaraz ateratzen dutenak. 11 izango dira sari-tuak eta teorikoa dohainik izango dute; gehienez, 400 euroko kostua izanik.

“Kotxeko azterketa gainditu dut!”. Aipamen hori atal praktikoa gainditzean bakarrik esaten zela dio Joxean Bengoetxeak, “atal teorikoari ez zaio inoiz kasurik egin”.

Baina orain bada kalean entzuten den beste esaldi bat: “Nik teorikoa gainditu dut, eta euskaraz!”. Balio berezi bat hartzen ari da aukera hori eta datuek ere argi uzten dute. Buruntzaldean gidabaimena euskaraz ateratzen dutenen kopu-

rua hirukoiztu egin da hiru urtetan: 2010ean 34 lagunek ateratu zuten; 2011n 60 lagunek; eta 2012an 112 lagunek.

BURUNTZALDEKO 10 AUTOESKOLETAN

Buruntzaldeko 10 autoeskoletan dago aukera gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzeko. Hori horrela, aurten ere, Buruntzaldeko udalek Semaforo Berdea! Gidabaimena euskaraz kanpaina martxan jarri dute eta saritu egingo dituzte eskualdeko autoeskoletan gidabaimena euskaraz ateratzen dutenak. Zozketa bidez, 11 izango dira sarituak eta teorikoa dohainik izango dute; gehienez, 400 euroko kostua izanik. Zozketa 2014ko urtarilean egingo da.

Sari banaketan, aldaketa izango da aurten. Orain arte, autoeskola bakoitzeko sari bat

“Herri bakoitzetik, autoeskola kopuru adina saritu aterako dira: Hernanitik 3, Lasarte-Oriatik 3, Andoaindik 2, eta Usurbil, Urnieta eta Astigarragatik bana”

zozketatzen zen eta orain, herriko emango dira sariak; herri bakoitzean dauden autoeskola adina sari. Astigarragaren kasuan, autoeskolarik ez dago, baina sari bat egongo da.

Autoeskola kopuru adina saritu aterako dira: Hernanitik 3, Lasarte-Oriatik 3, Andoaindik 2, eta Usurbil, Urnieta eta Astigarragatik bana. Aldaketaren arrazoia, honakoa: “Nagusiki, herri batean autoeskolarik ez dagoelako eta beraz, herri horretakoak saririk gabe geratuko lirakeelako lehengo sistemarekin”, azaldu dute.

NOLA IZANGO OTE DA EUSKARAZ?

Batek baino gehiagok euskaraz egin nahi bai, baina zalan-tza egingo du: agian gaztelaniaz baino zailagoa da, gai izango ote naiz... Joxean Bengoetxearen esanetan, euskaraz ez da zailagoa. “Hitz teknikoak dira ikasi beharrekoak eta gaztelaniaz edo euskaraz, berdin-berdin ezezagunak dira. Euskarazko ikasketak dituztenek ez dute inongo arazorik”, azpimarratu du.

Dena dela, norberak probatzea hobe izaten da eta horretarako aukera eskaintzen dute www.buruntzaldea.org web gunean. Galderak eta erantzunak, informazio orokorra, ikasgai bat euskaraz ikusi eta entzuteko aukera... Gai honi buruzko azalpen guztiak aurkitu daitezke bertan.

Drain

GIDABAIMENA MERKEAGO LOR DEZAKEZU!!

BURUNTZALDEAN NON:		
Andoain		
BENGOETXEA	Juan Bautista Erro 9	943 59 44 06
MENDI	Agustin de Leiza 11	943 30 06 04
Astigarraga		
Hernani		
HERNANI	Latsunbe 3	943 55 05 34
	Urbiet 7	943 55 34 16
LAGUNAK	Karohiet 1	943 33 14 19
OTAMENDI	Ispizua 1	943 55 35 45
Lasarte-Oria		
IZARRA	Geltoki 11	943 37 70 05
LASARTE	Nagusia 5	943 37 06 92
MUGICA	Ganbo 1	943 36 22 75
Urnieta		
SOLOZABAL	Idiazabal 24-1C	807 61 64 16
Usurbil		
SOLOZABAL	Iraza 2	943 37 69 36

MERKEAGO ATERATZEA NAHI?

DAKIZUNA ERABILI EZ DAKIZUNA IKASTEKO!

www.buruntzaldea.org

GIDABAIMENA EUSKARAZ!!

AZKEN TEKNOLOGIA
MURGILUTA
IRUDIEKIN JOLASEAN

HAUXE DUZU GIDABAIMENA ATERATZEKO MODURIK ERAKARGARRIENA!!!

gidabaimena EUSKARAZ

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- PARTE-HARTZAILE GUZTIAK BURUNTZALDEKO HERRIREN BATEAN ERROLDATUTA EGOTEA.
- GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEA 2013ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gidabaimenaren sari teorikoa euskaraz ateratzen dutenak hartuko dute parte zozketan.
- PARTE HARTZEKO HURRENGO DATUAK BETE ETA AUTOESKOLAN BERTAN UZTEA.

ETA HORI GUTXI BALITZ...

ZOKKETAN PARTE HARTZEKO AUKERA
11 SARI BURUNTZALDEAN:
TEORIKOAREN BALIOA (400 € GHEIENEZ)

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udaletako Euskarako Batzordea

LAB sindikatua: “Kalera ateratzera deitzen diegu herritarrei”

Erreformen aurka, “politika berria egitea babes sozialari dago-kionez eta ekonomia erreala suspertzeko”. Aldarrikapen hauen inguruan egin du bat Buruntzaldeko LAB sindikatuak, maiatzaren 30erako euskal gehiengo sindikalak deitu duen greba orokorrekin. Politikak benetan aldatzea, burujabetza eskuratu eta herritarren benetako parte hartzea bideratzea eskatzen dute.

Burutu beharreko aldaketak, “prozesu sozial baten emaitzak izango dira” diote LAB-etik. Eta prozesu horri begira, bi tresna eskura dituztela aipatzen dute: batetik, “akordio sozial zabalak eraikitzea”. Zehazkiago esanda, “aurreneko akordio handia Euskal Herriko



Buruntzaldeko LABeko kideak, grebara deitu zuten eguneko prentsaurrekoan.

LAB BURUNTZALDEA

“Bizi dugun egoerari erantzunik sendoena ematera deitzen ditugu langileak”

Eskubide Sozialen Gutuna izatean proposatzen dugu”.

Eta bigarrenik, “mobilizazioa eta borroka soziala”. Horren harira deitu dute sindikatuak, maiatzaren 30erako greba orokorra. Egun horretan, “kalera ateratzera deitzen diegu herritarrei. Bizi dugun egoerari ahalik eta erantzunik sendoena ematera deitzen ditugu langileak”.

ELA sindikatua: “Hautsa harrotu eta mobilizatzeko garaia da”

Alternatiba dugulako, beste politika batzuk derrigorrezkoak direlako” bat egin du Buruntzaldeko ELAK maiatzaren 30erako Hego Euskal Herriko gehiengo sindikalak deitu duen greba orokorrekin.

“Hautsa harrotu” eta mobilizatzeko garaia dela diote, grebarako hainbat arrazoi daudela baitiote; zerga-politikak zuzena ezartzeko, aurrekontuak gizartearen zerbitzura jartzeko, pentsioetako murrizketak ekiditeko, soldata jaitsierei aurre egiteko, patronalaren asmoei aurre egiteko, eskubide sozial eta laboral duinak behar ditugulako, maiatzaren 30ean “denok ka-



Argazkia: Txintxarri.

Buruntzaldeko ELAko ordezkariak Hernanin eskaini zuten prentsaurrekoa.

ELA BURUNTZALDEA

“Politika neoliberalak biluztu eta haiei aurre egiteko garaia da”

lera” ateratzeko deia egiten

diote herritarrei.

Planto egiteko garaia dela diote ELA-tik, klase borrokak indarrean jarraitzen duela erakutsi, indarrak bildu, “politika neoliberalaren funtsa biluztu eta haiei aurre egiteko garaia”.

“Ofentsiba berriaren abiapuntu izango da greba orokorra”

Asteazken honetarako gazte blokea eraikitzeko deia egin zegoen. Gazte blokea zertarako eraiki galdetu die aldizkari honek gazte blokeko sustatzaileei (elkarriketa osoa, www.noaia.com web orrian).

Zergatik ikusten duzue gazte blokea eratzeko beharra?

Gazte Blokea. Gazteok bizi dugun egoera latz eta anker honen aurrean, inoiz baino garrantzitsuagoa da denon indarrak batu eta herriko gazteen elkarlanaren bidez, gazteoi bizi duin bat bizitzeko dagozkigun eskubideen aldeko borroka abian jartzea. Horri erantzutea datorren tresna da gazte blokea.

Zertarako eraiki gazte blokea?

G. B. Gazte Blokea eraikitzeke tresna nagusia geu gara, gazteria alegia. Gazteok, norbanakook aberastu eta elikatuko dugu Gazte Blokea eta borroka, eta seguru gaude, borrokak ere gu elikatuko gaituela. Gazte blokearen helburuetako bat, ahalik eta gazte gehien gazteoi dagozkigun eskubideen aldeko borrokara lotzea da, eta horretarako, Gazte Blokea borrokarako esparru irekia, anitza eta zabala izango da. Finean, gazteok ditugun pentsamendu eta joera ezberdinak alboratu, eta gazteok bizi eredu duin batizateko oinarrien borrokan burutu nahi da indar metaketa.

Maiatzaren 30ean greba orokorra. Gazteek ere zergatik atera behar dute kalera egun horretan?

G. B. Gaur egun, borrokak ezertarako balio ez duenaren ustea zabaldu da hainbaten artean, jada galduta dagoela. Gu hau hankaz gora jartzera gatoz. Miseria egoera honetan, gazteok ez dugu ezer galtzekorik, aurrera eramaten dugun borroka ororen bitartez lortuko dugu gure garaipen txikia. Gazte Blokearen bidez erakutsiko dugu borrokak balio duela, borrokatzea bera ere garaipen bat baita. Borroka horretan, greba orokor hau Gazte Blokearen lehen harria izango da, gure aldarrikapen eta alternatibak mahai gainean jartzeko ariketa kolektiboa. Horregatik, Gazte Blokeak ere bere atxikimendua eman eta konpromiso irmoa hartzen du maiatzaren 30eko Greba Orokorraren aurrean.

Gutun Sozialaren abiapuntu izango da 30eko greba

Momentu honetan emergentzia egoeran gaude. 2007tik hona, izugarri igo da langabezia indizea. Buruntzaldean, adibidez, bikoiztu egin da langabezia. Familia asko inongo ingresorik gabe geratu dira...". Josu Portu LABeko ordezkariaren hitzak dira hauek. Aldaketa herri mugimenduen eskutik etorriko dela dio. Eta maiatzaren 30eko greba, hitzarmen sozial global baten abiapuntu izango dela adierazi digute LABeko ordezkariak.

Nola iritsi gara hona? Galdera horren erantzuna eman digu Josu Portuk: "komunikabideetan saltzen digute krisiak berak eraman gaituela egoera honetara. Baina krisia aitzakiatzat hartuta planteatu diren politika liberalak izan dira hona ekarri gaituztenak. Murrizketak, lan erreforma guztiak, pribatizazioak... Krisiaren sei urteko ibilbide luze honetan hori guztia da pairatzen ari garena".

LABeko ordezkariaren esanetan, "Madrilgo Gobernuak, Gasteiz zein Nafarroako gobernuak dira egoera honen errudun nagusiak". Honen aurrean, langileen borroka azpimarratu nahi du Josu Portuk. "2009tik hona borroka fase batean sartu ginen eta, enpresaz enpresa sektorez sektore, ondo erantzun du Euskal Herriak. Hitzarmen asko blindatzea lortu da. Estatu mailako enpre-



Mikel Artola eta Josu Portu LABeko ordezkariak zuzenean hitz egiten.

sa-hitzarmenen aurrean, horren aurrakako blindaje asko egin dira Gipuzkoan, metalean, garbiketan... 2002tik hona galdutzat eman ziren hitzarmen batzuk ere sinatu dira, papearren sektorekoa adibidez. Ikusi da borroka eman duela bere fruitua", adierazi digu LABeko ordezkariak.

Grebaren premia

Mikel Artola iritzi berekoa da. Beste lurralde batzuetako egoerarekin alderatuz, "beste egoera batean gaude hemen eta borroka horren ondorioz izan da. Borrokaren garrantzia azpimarratu nahi dugu". Zentzu horretan, greba premiazkoa dela uste du Josu Portuk. "Grebak ez duela ezer tarako baliodiote elite ekonomiko eta politikoei, grebaren biharamunean berdin zaudela... Egia da greba batek epe motzean ez duela efekturik, baina luzaroan mantendutako borroka

batek epe luzera bere fruituak ekartzen ditu. Metaleko hitzarmena ez zen izango orain den bezalakoa, mantendu den borroka mantendu izan ez balitz". Maiatzaren 30ekoa, gainera, ez omen da greba bat gehiago izango. "Alternatiba bakarrak burujabetza eta aldaketa soziala dira. Aldaketa sozial hori herri mugimenduetatik etorriko da. Ez dela goitik beharra etorriko, behetik gora baizik. ELA eta LAB sindikatuek dagoeneko adostu dute prozesu sozial bat abiaraztea". Helburua, Euskal Herriko Gutun Soziala adostea.

Gutun Soziala helburu

Sindikatuetatik haratago joango litzateke gutun soziala, eta prozesu nazionala izan arren, herriz herri landuko da. "Gure eskubideak isaltuko dituen agiria izango da gutun soziala delakoa. Usurbilen herri era-

gile guztiak landu nahi da", zehaztu digu Portuk.

Maiatzaren 30eko greba, beraz, abiapuntu bat izango da, Gutun Sozialaren ekimenaren atarikoa edo. Mikel Artolaren ustez, "dena da garrantzitsua. Grebaren beharra ikusten da baina berrikuntza batekin dator oraingoan. Usurbilen, lanean diren eragile guztiengana joko dugu, eurekin hitz egin nahi dugu eta greba orokorrarekiko atxikimendua batu nahi dugu batetik, baina bestetik, martxan jarriko den prozesu horretan partehartzera gonbidatuko zaie. Dagoeneko hasi gara herri eragileekin hitz egiten".

Maiatzak 25 larunbata

Elkarretaratzea, 12:30ean frontoian. Grebari atxikimendua eman dioten eragile sozial denak gonbidatu dituzte.

Maiatzak 30 osteguna

Greba eguna. 12:00etan manifestazioa Donostian. Hiru zutabe abiatuko dira, Anoeta, Gros eta Antiguatik. Usurbildarrei, Anoetara joateko deia egiten zaie.

18:00etan Manifestazioa Usurbilen.

Deitzaileak

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, HIRU, CGT-LKN eta CNT sindikatuak, eta 60 eragile baino gehiago.

'Bankuak tapiatu', greba deitzeko

'Bankuak Tapiatu' ekimena egin zuten astelehenean Usurbilgo aurrezki kutxa eta bankuen atarietan. Maiatzaren 30eko Greba Orokorra deitzeko baliatu zuten ekimen hau.



Astelehenean egin zen 'Bankuak Tapiatu' ekimena.

Usurbilen ere, #M18Plazara ekimenarekin bat

Usurbilgo Herrirak bat egin zuten #M18Plazara izeneko ekimenarekin. Eta Herrirarekin batera, argazkian diren herritarrak. Usurbil Egin web orriak dioenez, "herritarrak ez zuten hutsik egin. Euriak, haizeak eta kazkabarrek ez dute ekimena zapuztu". Argazki honen bidez, euskal presoek eskubideak aldarrikatu nahi dituzte.



Maiatzaren 18an elkartu ziren frontoian.

Olatu Talka gure artera iritsiko da

ORIA GARBITZEA, KONTZERTUA, ZIKLOBIA... ASTEBURU BETE EKITALDI USURBILEN ETA ZUBIETAN

Olatu Talkaren oihartzuna Donostiatik Zubietara eta Artzabalera helduko da aurten. Ehunetik gora ekitaldi antolatutako dituzte, asteburu honetarako. Tartean, Oria ibaia garbitzeko deialdia eta Artzabalen kontzertua larunbatean. Eta iganderako, Ibaeta, Añorga eta Zubietan lotuko dituen Ziklobia. Egun osorako kultur ekimenak izango dira. Hiru guneok lotzen dituen N-1 errepidea autoentzat itxiko dute. Baita N-634 errepidea Txikiardi eta Errekalde artean. Oinez, bizikletan, patinetan... ibili ahal izango da tarte honetan bertan.



Aurreko astean egin zen ekitaldien inguruko prentsurrekoa.

"Egun batez, motordun ibilgailuak aterako ditugu eta oinezko, bizikleta eta motorrik gabeko ibilgailuentzat soilik izango da erabilgarri, Ibaeta eta Zubietan arteko errepidea. Hiri dinamikoago eta osasungarriago bat lortzeko helburua duen ekimen honek, errepideaz beste era batera gozatze-ko aukera ematen du, haize zabalean, denontzat eta doan. Zatoz eta gozatu jarduera guztiez!", luzatu dute gonbita antolatzaileek.

Ziklobia ekimena, Donostiaren bigarren mendeurren ospakizunen testuinguruan kokatu dute. "1813an, suntsitu berria zen Donostia berri-zearen inguruko gogoeta hasia erabaki zuen Zubietan elkarturiko donostiar talde batek, etorkizuneko hiria izango zena eraikitze-ko. Herri-
tar talde haren indarrarekin lortu zen Donostia biziberritzea eta gaur egun bihurtu den horren lehen hazia izatea. Gertakari hark betiko definitu du gure izaera", diote antolatzaileek. Hona hemen, maiatzeko azken aste-

IGANDEAN, ZIKLOBIA

"Egun batez, oinezko, bizikleta eta motorrik gabeko ibilgailuentzat soilik izango da erabilgarri, Ibaeta eta Zubietan arteko errepidea"

buru honetarako antolatu den egitarau zabala:

Maiatzak 25, larunbata

■ **11:00 Oria ibaiaren garbiketa Santueneko zubitik:** Zubietan inguruko ibai zati bat auzolanean garbituko da bertan, Donostia, Zubietan, Usurbil, Lasarte eta Orioko hainbat eragile eta herritarrek parte hartuko dutelarik. Erreka garbitu ondoren (12:00ak aldera) bertso emanaldia. Gai nagusia, ibai-garbiketarik ateratako zaborra. Segidan, Joko Garbi elkarte-koek prestatutako hamaiketakoa.

Parte hartzea irekia da.

■ **20:00 Talka!live: Azkaiter Pelox Band Artzabal tabernan.** Zuze-neko musika zirkuitua. Olatu Talkaren egunetan zehar 100 kontzertu inguru emango dira leku ezberdinetan.

Maiatzak 26, igandea

■ **9:00-16:00 Ziklobia.** Zubietatik Ibaetara N1 errepidea oinezkoie, txirrindulariei eta hurbildu nahi duen edonori irekiko zaie, egun batez motordun ibilgailuak beste bide batetik joango direlarik. Ibilbidean zehar hiru gune nagusi egongo dira: Zubietan, Añorga eta Ibaeta. Bertan hainbat jarduera egongo dira: musika, dantza, jan eta edana, haurrentzat tailerrak, ipuin kontaketa, errebote partidak... Usurbildik Zubietara errepidez hurbildu daiteke eta Ziklobiarekin bat egin.

■ **10:00-12:30 Euskal Ligako**

Errebote partida: Zubietan eta Senpere lehian.

■ **10:30 Historia origamiaren bidez.** Mari Joxe Azurtzak tolestutako paperekin egindako irudiak.

■ **10:30 Euskal ikurrak, irudiak eta grafia tailerra.** Edorta Murua. 8-14 urte bitartekoentzat tailerra.

■ **10:30 Apaindu danborra jo baino lehen.** Musikoporrak. Birziklatutako materialarekin danborrak egiteko tailerra, 4-12 urteko umeentzat.

■ **11:00 Kultur hiriburuaren eskusoinuak.** Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Estola eta eskusoinu-joleak. Eskusoinu-joleak, herrialde ezberdinak ordezkatzeko dituzte Zubietako Plazan. Zubietako toki ezberdinetatik abiatuko dira eta plazan elkartuko emandari komun batean.

■ **11:00-14:00 Eguzki-hamaiketakoa.** Sukaltalka, Hormiga Atomnika, Sukaltalde. Eguzki-sukaldeen prestatutako produktu ekologikoz osatutako hamaiketako mundiala. Dasta ezazu!!!!

■ **12:30-13:30 Pilota-Joko tradizionalak.** Daniel Carballo. Zubietako Pilotariak, Txost pilota elkar-
tea, Baztan, Oiartzun eta Villabonako pilotariak.

■ **12:45 Kontrapas.** Garaztarrak. Donibane Garaziko Garaztarrak dantza konpainiak, bere azken lana aurkeztuko digu, non antzerkiak, poesiak eta dantzak bat egiten duten. Eszena gainean 23 dantzari eta 6 musikari arituko dira.

■ **13:30 Konparts-eroak.** Donostiako konpartsak.

Antolatzailea: olatutalka.eu

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Kiroldegiko udako ekintzak

Udan ere, kirola eginez gozatzeko aukera eskainiko du aurten Oiardo Kiroldegia. "Kirolarekin jolasean" ekimena antolatuko dute, 8-10 urte artekoentzat. Goizez eta hiru orduetarako; 10:00etatik 13:00etara. Hondartzara, mendira bizikleta gainean, igerilekuetara irteerak egiteko aukera egongo da. Eta herrian bertan, kirol jarduera desberdinak: pilota, waterpolo, saskibaloia, herri kirolak... Eta baita ur jolasak, brilet, altxorren bila, ginkana...

Oiardo Kiroldegian edo kalean egingo diren ekintza guztietaz gozatzeko, bi asteko iraupena izango duten txanda bana antolatuko dute. Lehenengo, uztailaren 1etik 16ra; bigarrena, uztailaren 17tik 30era. Prezioa: abonatuak direnentzat; 106 euro. Udako ekimen honetan izen emateko epea, ekainaren 1etik 23ra, Oiardo Kiroldegian.

Helduentzako ere udako eskaintza

Igerilekuan ere ikastaroak izango dira uztailaren; hastapen eta hobekuntzakoak helduentzat, eta baita haurtoentzat zein 3-7 urte artekoek zuzendurikoak ere.

Uretatik kanpo, lehorrean, spinning, gimnasia, yoga, zumba, pilates, aerobik, jubilatuentzako saioak... Ikastaro hauen ordutegien eta gainerako zehaztasunen inguruko informazio gehiago, baita izen emateko ere, Oiardo Kiroldegian bertan edo 943 372 498 telefono zenbakian

Tximeletako ikuskizuna kiroldegian

Tximeletako hip-hop eta soinketa erritmikoko taldeek emanaldi bat egingo dute ekainaren 18an Oiardo kiroldegian. Emanaldi honetan 4 urtetik 21 urte arteko ikasleek hartuko dute dute parte. Arratsaldeko 17:15ean hasiko da.



Ekainaren 18an egingo dute saioa kiroldegian.



Gaztetxoentzat eta helduentzat, eskaintza zabala prestatu dute Oiardo kiroldegian.

"Pirinioetako hirimilakoak"

Patxi Azpiroz herritarraren eskutik, hiru mila metrotik gorako garaiera duten Pirinioetako mendiak ezagutzeko aukera izango da ekainaren 7an, 19:30etan Sutegiko aretoan. Berak mendiotan ateratako irudiak bildu eta proiektatuko ditu kultur etxean, musikarekin girotuta. "Nire lehenengo hiru milakoa Balaitous izan zen 1979an. 25 urte beranduago, 2004an, nire 212. hiru milakoa igo nuen Perdido Mendiaren Hatza. 25 urtetan igotako 212 gailur hauek, urtaro ezberdinetan egingo da daude", berri eman du Azpiroztek berak, Andatza Mendizaleen Kirol Taldeko web orri bidez. Bidaia lagun izan dituen usurbildarrak eta beste hainbat txokotakoak, erretratatu ageri dira argazki proiektzio honetan.

Zilarrezko domina Espainiako Judo Txapelketan

Mager Carazas du izena eta etorkizun handia judon. Pasa den asteburuan, Espainiako Txapelketa jokatu zen A Coruñan eta zilarrezko domina eskuratu zuen. Gipuzkoa eta Euskadiko Txapelketan ere emaitza bikainak lortu ditu. Zorionak!



Mager Carazas, domina eskuratu berri.

Eskubaloia partidak Oiardon

Maiatzak 25, larunbata

16:00 Jubenil neskak, Gipuzkoako Kopako finala: Aiala ZKE-Bera Bera
17:45 Kadete neskak, Gipuzkoako Kopako finala: Usurbil K.E.-Astigarraga Gys Sport Elgoibar
19:30 Jubenil mutilak, Gipuzkoako Kopako finala: Usurbil K.E.-Tolosa C.F.

Maiatzak 26, igandea

11:15 Kadete neskak, Gipuzkoako selekzioaren kontzentrazioa:

Leire Furundarena, Selekzioarekin

Maiatzak 26 igandea

10:00-12:00 Jubenil nesken taldea, Zarauzko Aritzatalde Kiroldegian: Leire Furundarena.

Pilota partidak

Maiatzak 25 larunbata

Goizeko 11:00etan Usurbilen

NAGUSIAK

Ezkurdia-Bergera (Irurtzun)

Portu-Murgiondo (Usurbil, Azpeitia)

Muguruza-Rezusta (Bergara)

Iriondo-Uzkudun (Azpeitia)

Maiatzak 26 igandea

Goizeko 11:00etan Usurbilen

NAGUSIAK

Loitegi - Gurutzealde (Urnieta)

Errasti - Gorrotxategi (Usurbil, Hernani)

Belloso-Senperena (Tolosa)

Lizaso - Erreka (Erreala)

Errebote partida Zubietan

Igande honetan, Olatu Talka ekimenaren baitan, Euskal Ligako errebote partida jokatuko da Zubietan. Aurrez aurre, Zubieta eta Senpere izango dira lehian. Partida goizeko 10:00etan hasiko da.



Igandeko partida goizeko 10:00etan hasiko da.

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxebizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpinean. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, + 60 metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxebat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxia. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkioekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 200.000 (negoziagarriak). 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ede-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaia.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

rrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzaren jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpoaldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Kaskoan pisu bat alokatzen dugu, Txaramunton. 4 gela, sala, bi komun eta sukaldea. Abala eskatzen da. Tlf. 688 675 856

Usurbilgo kaxkoan pisu eguzkitsua, 2 logela. Igogailuarekin eta berogailuarekin. 635 20 56 94.

Kaxkoan pisu eguzkitsua alokatzen da, 2 logela. Igogailuarekin, berogailuarekin. 635205694

Pisu bat alokatzen da kaskoan, 3 logela, sala, sukalde, komuna. Dena kanpoaldera, eguzkitsua. 648868599

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta igogailuarekin. 943371495-

695767821-657711335

Gela bat alokatzen da dena berri-tua kaxkoan, gizaseme langile jubilatu bati. Etxe lasaia. Atzeritarrik ez. Tel. 687 348 223.

Pisua alokatzen da kaxkoan. 3 gela, 2 komun, sukaldea, egongela, trasteroa, garajea eta igogailuarekin. Tel. 656 783 228.

Logela bat alokairuan Zubietan. 350 euro. 655 744 039.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berri baten. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratzea egiteko aukera. 665 720 913.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berri-tua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.

MOTORRA

salmenta,
garajeak

Opel Zafira salgai, 1.781cv. 2010eko urrikoa. 25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Seat Ibiza 1.4Tdi 80zaldi. 58.500km. 2009 urte amaierakoa, 5 ate, txuria. Jabe bakarra, ez erretzailea eta beti garajea.

Volkswagen Multivan 2.5 TDI 130cv salgai. 2006koa, 151.000 km, gris iluna. 650919065.

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrena 10ean. Tel. 620 024 663.

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

Garajea salgai Txaramunton. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Haurrak zaintzeko prest nago udaraz zehar goizez zein arratsalde. Irakaskuntza gradua bukatu eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zaindiko nituzke goizez zein arratsalde. Irakaskuntzan diplomaturia. (647142701 Amaia)

Auxiliari geriatria eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketarako. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketarako eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenerieria ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalanera-ko klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urte-tako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko.

Zorionak Prexiosos!!

Ondo pasa zuen urtebetze-an. Asko maite zaituztegu!! Familia guztien partetik.

Heriotzak

Dolores Borda Zubeldia
92 urterekin hil zen
maiatzaren 9an, Usurbilen



Zorionak Intza eta Lide!!

Maiatzaren 18an egin zenituzten 2 urte. Muxu potxolobana denon partez.



Zorionak Naiara! Astelehe-

nean 2 urte bete dituzu. Txoko-marrubizko muxu asko, etxeko guztien partez. Larunbatean ospatuko dugu!!!



Zorionak Julen!

Maiatzaren 26an 12 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta muxu handi bat etxekoen partez.



Gure artean ezinezkoa izango denez, Estatuaren zitalkeriak urtebetetzea zure kuttunarekin ospatzeko aukera bederen ez zapuztea opa dizugu. Zorionak!

teko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko ostalaritzarako, interna moduan. 673445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko.

662 247 324

Umeak zaindu arratsalde edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Lan eskaintzak

Emakume euskalduna eta usurbildarra behar dugu asteleheneretik ostiralera, 12:30-14:30 artean eta astelehen eta asteazkenetan, 16:30-18:00 artean, bi haur zaintzeko irailetik aurrera. Gabonetan, Aste Santutan, uztailean eta abuztuan izan ezik. 635 755 666

Usurbil aldean komertzialak

behar dira. Seriotasuna eta baldintza onak. 943 440 487.

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. Telefono zenbakia: 9433743 30

BESTELAKOAK

Frantseseko klaseak hartuko nituzke. 666 607 447

Erromeri talde baterako, tronpetata eta tronboi jole bila gabiltza uda honetako kontzertuetan hasteko. 660214740

Etxean egindako haur manta bat galdu dugu, koadroduna, morea, grisa, horia eta naranja kolorekoa.

Aurkitzen baduzu: 626 368 019

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

Mendiko jertse gorri bat galdu nuen Andatzen. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko nioke, Udaltzaingoa utziz edo deitu: 667 830 484.

Hiru metroko sofa salgai, "txeslorarekin". 400 euro (negoziagatzen).

riak). Berri berria. 653 711 574.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600 244 126

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Gasze usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko pala txiki bat galdu genuen herriko frontoian... 639 469 577.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haurjokoak, liburuak, kirol materiala, ispilak, lanparak, alfonbrak, sehaskak, maletak... Atalluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udaltzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arretra ..	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorzetxea	943 362 163
Oiaro Kiroldegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Egunko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkartea	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak maiatzak 23-ekainak 2

Osteguna 23	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Ostirala 24	GANDARIAS-URIBE	Iñigo de Loyola 9 Lasarte
Larunbata 25	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Igandea 26	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Astelehena 27	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
Asteartea 28	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Asteazkena 29	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte

Osteguna 30	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 31	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Larunbata 1	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Igandea 2	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00etatik
13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8
(Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL



ARRANDEGIA PELLO

PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL



Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra

943 24 01 76 eta
649 435 470

errazkinsl@euskalnet.net

Oztaran auzoa 33, URNIETA

Agenda maiatza

24 ostirala

■ **Musika eta antzerki emanaldia Zubietan, Kultur Astearen baitan.** 17:00etan frontoian.

25 larunbata

■ **Olatu Talka**, 11:00etan Oria ibaiaren garbiketa Santueneko zubitik. Ondoren bertso-saioa eta hamaiketakoa.

■ **Kantu-jira**. 19:00etan Mikel Laboa plazan.

■ **Azkaiter Pelox Band Artzabal tabernan.** 20:00etan Talkallve ekimena.

26 igandea

■ **Olatu Talka**, Ziklobia. 9:00etatik 16:00etara (egitarau osoa 14. orrialdean).

Larunbatean kantu-jira eta asteartean, hitzaldia Artzabalen

Larunbat hau hilabeteko azkena izango da. Beraz, ohiturari jarraituz, kantu taldekoak kantariaterako dira. Arratsaldeko 19:00etan abiatuko dira Mikel Laboa Plazatik. Datorren aste-rako, ordea, euskal kantagintzari buruzko hitzaldia antolatu dute Artzabalen: asteartean, arratsaldeko 18:30ean hasita.

Abestien bidez, euskal kantagintzaren historia ezagutzeko aukera aparta eskainiko digu Andoni Tolosa Morau musikariak. 1961etik 1990era-ko historia kontatuko du datorren asteartean, Artzabalen eskainiko duen hitzaldian. Kantuak ez ezik, hainbat bideo, argazki eta bestelakoak ere baliatuko ditu.

Atzerrian bezala, Euskal Herrian tradizioa etorkizunarekin lotzea zen musikarion kezka nagusia. Ez Dok Amairu, Laboa, Lertxundi, Lete eta abar jarriko ditu adibide, baina baita horren



Morau-k eskainiko du hitzaldia (argazkia: Berria).

ezagunak ez diren Soroak, Enarak, Urretxindor-rrak eta Estitxu Robles-Arangizzen doinu ye-yeak ere. Horiek urraturiko bidea Errobi, Sutagar eta Negu Gorriak taldeekin lotuko du.

Euskal Kantagintzaren historia

■ Maiatzak 28 asteartea.

■ 18:30ean Artzabalen.

■ Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.

Igande honetan, Txikiren bakarriketa gaztetxean

Igande honetan, Txikiren bakarriketa saioa Usurbilgo gaztetxean. "Mil a zien, baietz parrez lehertu" du izena obrak. Realaren partida 20:00etan izango denez, bakarriketa bi orduz aurreratu dute eta 18:00etan hasiko da. 40 minutuko iraupena izango du. Sarrera, 2 euro.

MunduMob dantza ikasteko aukera Zubietan

"Usurbilen MunduMob dantza ikasi ez duzenon-tzat, entseguak antolatu ditugu Zubietan", hala dio Zubietan Lantzenek igorri digun oharra. Ensaioak maiatzaren 24an, maiatzaren 31n eta ekainaren 7an egingo dira, 19:00etan Eskola Txikian.

Datozenak

Badator Ikastola Eguna

Ikasle, irakasle eta gurasoak bildu ohi dituen Ikastola Eguna aurten, ekainaren 2an ospatuko da. Egun horren aurretik ordea, girotzen joateko zenbait ekitaldi antolatu dituzte.

Maiatzak 27, astelehena

17:00 Bertso jaialdia Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. LH 5-LH 6ko ikasleak.

Maiatzak 28, asteartea

18:30 Urteko ohiko batzarraren bigarren zatia Udarregi Ikastolako erdiko aretoan.

Maiatzak 29, asteazkena

18:30 HH5 eta LH 5eko kantagintza saioa Sutegiko auditorioan.

Maiatzak 31, ostirala

22:00 "Euskararen espektakulue" emanaldia Sutegiko auditorioan. Sarrerak: 2 eurotan aldez aurretik, 4 eurotan egun berean.

Ekainak 2, igandea

9:00-11:30 LH eta DBHko ikasleekin jolasak ikastolako patioan.

10:00-13:30 Erakusketa ikastolan.

12:00 HH-koen ikuskizunak 25 urte, Oiardo Kiroldogan. Imanol Urbietari omenaldia.

14:30 Bazkaria frontoian. Sarrerak salgai Ikastolako idazkaritzan. Ondoren, dantzaldia. Antolatzailea: Udarregi Ikastola.

Andoni Errazkin

Xukin

igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

663 08 76 71 • 943 24 34 65

ARTZABAL

Baserria - Jabetxea

943 36 91 39

TAXI

607 92 87 70

943 00 44 83

Angel (24h) USURBIL

TXAPELDUN

TABERNA

razioak

ogitartekoak

plater konbinatuak...

Muna lurrea 2, 943 11 82 53






MAIATZA / EKAINA

%5



DESKONTUA

Maiatzaren 27tik ekainaren 2ra bitartean
erosketa guztietan %5eko deskontua izango
duzu Hurbilago txartelarekin ordainduta.



Edertu zaituz!

Loli Lizarralde
ESTILISTA

L'ORÉAL
PROFESSIONNEL

Steam
pod
BERRIA

BAPORE BIDEZ ORRAZKETA

***EZ DUGU BEZ-A (IVA) IGO!**

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971

Inar
ESTETIKA

EZKONDUKO ZARA?
EMAZTEGAI TRATAMENDU BEREZIAK
TRATAMENDU KOKTEL EZBERDINAK

munalurra 2, Usurbil 943 571 680

Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA

artzabal baserria 626603600

Egverditan irekia!
Nagusia 8, Usurbil 943 36 36 41

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN
ESTILISMOA ETA ESTETIKA
LANTZEN DITUGU

ESTETIKA ESKAINTZAK
Gorputz espoliazioa eta masajea edo Aurpegiko
garbiketa osoa edo Manikura eta pedikura osoa:
30€-tan (jubilatuentzat 22€)

IKASLE EDO: 18< GAZTEENTZAT, DEPILAZIOAN:
Ingleak + besapeak: **10€** · Bekainak eta bibotea: **7€**
Hanka osoak: **18€** · Hanka erdiak: **10€**

Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta etzandako
Solariuma

Muna Lurra 12, ☎ 943 370 462

GOLDWELL
ELUMEN

mistoa

Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951